



EBAZPENA, 2022ko martxoaren 29koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Ebazpen honen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren menpe dauden Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, Hizkuntza-Eskola ofizialetako Katedradun eta Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoko Katedradun eta Irakasleen, Arte Plastiko eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetako funtzionarioen arteko 2021/2022ko lekualdatze-lehiaketako destinoen behin-behineko esleipena argitaratzen da.

Hezkuntza sailburuaren 2021eko azaroaren 5eko aginduak (2021eko azaroaren 12koa EHAA), Katedradunen, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen, Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetako funtzionario irakasleen artean 2021/2022ko ikasturtean lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hogeita laugarren oinarrian xedatutakoaren arabera, eta parte hartzen duen pertsonalari emandako behin betiko puntuazioak kontuan hartuta, behin-behineko destinoak esleitu dira.

Horregatik, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasleen, Hizkuntza-Eskola ofizialetako Katedradun eta Irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoko Katedradun eta Irakasleen, Arte Plastiko eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen eta Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoetako funtzionarioen arteko 2021/2022ko lekualdatze-lehiaketako destinoen behin-behineko esleipena argitara ematea.

Bigarrena.- Erreklamazioak aurkezteko eta destinoei uko egiteko epea irekitzea, 2022ko martxoaren 31tik apirilak 6ra, bi egun horiek barne.

Hirugarrena.- Erreklamazioa aurkeztu edo uko egitea ondorengo Interneteko helbide honen bidez egin behar da, adierazitako epean <https://hezigunea.euskadi.eus>.

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**

Vitoria-Gasteizen, 2022ko martxoaren 29an